

Oporrak Bakean proiektuan parte hartu nahi duten familien izen-ematea martxan

Proiektu honek saharako haurrei aukera ematen die udako bi hilabetetan desertuko tenperatura altuak saiestu eta kultur elkartrukeaz gain beraien elikadura eta osasuna indatzerko.

Andoaingo Udalak 2000. urtetik parte hartzen du egitasmo honetan Hurria Sahara Elkartearekin elkarlanean. Egonaldi hau andoaingo familietan egiten da eta egun izen-ematea martxan dago interesa duten familia berrientzat.

Oporrak bakean helburu orokorra familia euskaldunetan 8 eta 12 urte bitarteko saharar haur errefuxiatuak denbora baterako harreran hartzea da, udako hilabeteetan zehar.

Harrera honen arrazoiak hurrengoak dira:

- Haurrak basamortuko **udako baldintza gogorretatik aldentzea** (udan 50 gradu baino gehiagoko tenperaturak, are ekaitzak...).
- Haurren **osasuna hobetu elikadura orekatu baten bitartez**
- Oinarrizko **osasun azterketak egin** eta kanpamentuetan antzeman edo tratatzea zaila diren gaitzak artatu: ikusmen eta entzumen arazoak, hortzetako gaitzak...
- Haur sahararrek kultura eta hizkuntza berriak eta errefuxiatu kanpamentuetakoa ez den **beste errealitate bat ezagutzea**.
- Mendebaldeko Sahara eta Herri Sahararraren egoeraren bueltan **euskal herritarrak sentsibilizatu**.
- Gizarte sahararra eta gizarte euskaldunaren arteko **harremana sustatu**.

Proiektuaren inguruan zehaztazun gehiago hurrengo bideoetan:

[Sahara-Andoain elkartasuna](#)

[Familien Esperientziak](#)